

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ospitale Guneko ospitaleetako infekzioak saihestera zuzenduriko programa bat saritu dute erizaintzako estatuko biltzar batean

"Frena la neumonía" ("Gelditu pneumonia") proiektua duela bi urte hasi zuten eta Nafarroako Ospitale Guneko "A" ZIUko osasun langileek parte hartu dute proiektuan

Lunes, 04 de julio de 2011

"Frena la Neumonía" izeneko programa Nafarroako Ospitale Guneko "A" Zainketa Intentsiboetako Unitateko diziplina anitzeko taldeak garatu du eta Erizaintza Intentsiboko eta Unitate Koronarioen Espainiako Sozietatearen Estatuko Biltzarrean (SEEIUC) saritu zuten, joan den ekainaren 12tik 15era egin zen batzarrean, Bilbon. Aireztatze mekanikoari loturiko pneumonia saihesteari buruzko komunikaziorik onenari emandako saria da.

Duela bi urte, paziente kritikoari ematen zaizkion arreta eta zaintzaren kalitatea hobetzeko asmoarekin, Nafarroako Ospitale Guneko Zainketa Intentsiboetako Unitateko diziplina anitzeko

talde batek "Frena la Neumonía" izeneko programa jarri zuen abian, aireztatze mekanikoari loturiko pneumonia saihesteko. Aipatu beharra dago, paziente kritikoek infekzio nosokomialak (ospitalean bertan hartutakoak) garatzeko gaitzikortasun handiagoa dutela, haien patologia larriagoa delako, kateter, hodi eta zunda ugari jartzen dizkietelako eta teknika inbasiboak maiz izaten dituztelako.

Programa honetan datza: aireztatze mekanikoari loturiko pneumoniari buruzko aurrez aurreko edo online prestakuntza teorikoa ematea, baita horrekin lorturiko alderdiak ere unitateko langileei, prestakuntza egin ondorengo hilean eta urtean ikasitakoaren ebaluazioa egitea, aireztatze



Saritu den lanaren egileetatik hiru: Isabel Irigoyen, M. Teresa García eta Consuelo Zazpe

mekanikoari loturiko pneumonia saihestera bideraturiko erizaintzako zinketen pakete bat ezartzea (ahoa sarri garbitzea, oheburua 30° baino gehiago igotzea eta hodi endotrakealen neumotaponamenduaren presioari 20 eta 30 cm H₂O-tan eustea). Zinketa horiek erraz aplikatzekoak izango dira, ahoko bakterio flora murriztera eta biriketako mikrospirazioak saihestera bideraturikoak. Horrez gain, hilero ikuskapenak egingo dira zinketa horiek nola burutzen diren egiaztatzeko, eta, antzematen diren desbideratzeen arabera, programa indartzeko hainbat neurri ezarriko dira.

"Frena la Neumonía" programan unitateko langile guztiek parte hartu dute. Adierazi beharra dago, aireztatze mekanikoari loturiko pneumonia kasuen tasari Osasun Ministerioak proposaturiko mailaren azpitik eutsi diotela eta, gainera, paziente kritikoa artatzen duten profesionalen segurtasun kulturak ere gora egin duela, egindako zinketen helburua zailtasunak ekiditea eta laguntzaren kalitatea hobetzea delak.